



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 24a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Fiskalizazio txostena, Andacelay SL tokiko sozietate publikoak lehenasunezko partaidetzak erosi izanari buruzkoa (2011-2013), Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Fiskalizazio txostena, Andacelay SL tokiko sozietate publikoak lehentasunezko partaidetzak erosi izanari buruzkoa (2011-2013), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Andacelay SL tokiko sozietate publikoak lehentasunezko partaidetzak erosi izanari buruzkoa (2011-2013), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Fiskalizazio txostena, Andacelay SL tokiko sozietate publikoak lehentasunezko partaidetzak erosi izanari buruzkoa (2011-2013), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua eta norainokoa (3. or.).

III. Andacelay, SL tokiko sozietate publikoa (4. or.).

IV. Andacelay, SL tokiko sozietate publikoak lehentasunezko partaidetzak erostea (7. or.).

IV.1. Lehentasunezko partaidetzak (7. or.).

IV.2. Andacelay, SL sozietate publikoak lehentasunezko partaidetzak erostea. (8. or.).

V. Ondorioak (12. or.).

V.1. Andacelay, SLk lehentasunezko partaidetzak erostearen testuingurua (12. or.).

V.2. Legezketasun printzipioa betetzea lehentasunezko partaidetzak erosterakotan (12. or.).

V.3. Lehentasunezko partaidetzen erosketan aplikatutako barne kontroleko eta gardentasuneko prozedurak. (13. or.).

V.4. Eragiketaren emaitza ekonomikoa (14. or.).

Eranskina. Lehentasunezko partaidetzak eta bestelako balio negoziagarri tipikoak (15. or.).

Andacelay, SL tokiko sozietate publikoaren administrazio kontseiluko buru ohiak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (16. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emaniko erantzuna (18. or.).

I. SARRERA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen ekimenez eta Nafarroako Parlamentuko Mahaia-
ren eta Eledunen Batzarraren 2012ko abenduaren 27ko erabakiz, onetsi zen Kontuen Ganberari
eskatzea txosten bat egin zezala "Andacelay, SL sozietate publikoak lehentasunezko partaide-
tzak erostearen legezketasunari buruz". Eskari hori Kontuen Ganberaren 2013ko jarduketa pro-
graman sartu da.

Andacelay, SL tokiko sozietate publikoa Eguesibarko Udalak eraturako entitate bat da. Udala-
rena da sozietate publikoaren kapital sozialaren ehuneko 100. Sozietate publikoak bere estatu-
tuak dauzka arau gisa, baina, horretaz gainera, toki-araubidearen araudi orokorraren eta inda-
rrean dagoen merkataritza-araudiaren bidez araututa dago; bereziki, Merkataritza Kodearen, Ka-
pitaleko Sozietateen Legearen eta Kontabilitate Plan Orokorraren bidez.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, helburuak eta egindako lanaren
norainokoa ageri dira. Hirugarrenean aipamen labur bat aurkeztu dugu sozietateak garatutako
jarduerari buruz; laugarrenean, deskribatzen dira bai lehentasunezko partaidetzen oinarritzko
ezaugarria, bai, kronologikoki, haien erosketaren eta geroko salmentaren inguruko egitate nagu-
siak. Azkenik, bosgarrenean, fiskalizazioaren xede den eragiketari buruz atera ditugun ondorioak
eman ditugu.

Txosten honekin batera, eranskin bat dago, non lehentasunezko partaidetzen eta bestelako
balio negoziagarri tipikoen arteko desberdintasun garrantzitsuenak aztertu ditugun.

Eskerrak ematen dizkiegu Andacelay SL sozietate publikoko langileei, lan hau egitean eman-
dako laguntzarengatik.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko
6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari
eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Andace-
lay, SL tokiko sozietate publikoak Catalunya Caixaren lehentasunezko partaidetzak erosteari bu-
ruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txosten honen xedea da gaiari buruzko gure iritzia ematea, argitze aldera "Andacelay SL so-
zietateak 2011ko martxoan lehentasunezko partaidetzak erosteko inbertsio finantzarioak legezko-
tasun, gardentasun eta kudeaketa zuzenaren printzipioak betetzen ote dituen"

Metodologia gisa, lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Ba-
tzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoa-
ren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren hel-
buruen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Lana, funtsean, honako hauek izan ditu ardatz:

- Catalunya Caixaren lehentasunezko partaidetzak erosteko oinarri izan den dokumentazioa
berraztertzea eta egiaztatzea ea sozietatearen lege- eta estatutu-arauak bete diren.
- Eragiketan aplikatutako barne kontroleko eta gardentasuneko mekanismoak.
- Aurreko eragiketak sozietatean eragin dituen emaitza ekonomikoak.

Zehaztu beharra dago jarduketa hau dela-eta salaketa bat aurkeztu dela dagozkion justizia-
organoetan, eta erabaki judiziala emateko dagoela.

Azkenik, aipatu behar dugu Kontuen Ganbera honen eskumen-esparrua, indarreko legediaren
arabera, foru sektore publikoko entitateen fiskalizazio ekonomiko eta finantzariora mugatzen
dela, eta ez daukala eskumenik esparru horretatik kanpora pertsona fisikoek eta/edo juridikoek
eginiko jarduketak ikertu edo berrikusteko.

III. ANDACELAY, SL TOKIKO SOZIETATE PUBLIKOA

Eguesibarko Udalak 2004an eratu zuen Andacelay, SL pertsona bakarreko sozietate publikoa, Udalak osorik harpidetu eta ordaindutako 4.000 euroko kapital sozialarekin. Sozietate horren eratze-estatutuak 2004ko urrian onetsi ziren. 2012ko abuztuan, berriz, aldatu egin ziren.

Helburu sozialaren barruan honako xedeak aurkitzen ditugu:

- a) Kasuko profesionalak hirigintzako plangintzako eta kudeaketako tresnen idazketa koordinatzea.
- b) Lurzoruaren sustapena, haren eraldaketaren eta urbanizazioaren bidez.
- c) Urbanizatzetik heldu diren obrak kudeatzea eta ustiatzea, eginkizun horien emakida lortuz gero.
- d) Lurzatiak besterentzea.
- e) Etxebizitzaren sustapena egitea eta zaharberritzea eta industria-nabeen sustapena egitea, salmenta-araubidean zein alokairu-araubidean.
- f) Erkidego-ekipamenduaren sustapena eta kudeaketa egitea.
- g) Ostatu emateko zerbitzuak sustatzea.
- h) Aisia-jardueren sustapena.
- i) Ostalaritza eta sukaldaritza.
- j) Administrazio-zerbitzuak, logistikoak eta entitate publiko eta pribatuekiko komunikazioa.
- k) Udalaren lur-ondarearen administrazioa, higiezinaren merkatuan esku hartuz.

Aurreko jarduketak sozietateak zeharka egin ahalko ditu, edozein motatako elkartetan parte hartuz, nortasun juridikoa dutenekin nahiz halakorik ez dutenekin; antzeko xedea dutenekin nahiz xede berbera dutenekin.

Sozietateak udaletxean bertan du helbidea. 2012ko amaierara arte ez du ez pertsona-baliabiderik, ez baliabide materialik izan bere eginkizunetan jarduteko. Aipatutako urteko abenduan, Administrazio Kontseiluaren osaketan gertatutako aldatetaren ondorioz, kudeatzaile bat izendatu zen, eta hark sozietatearen ahal-dun-eginkizunak hartu zituen.

Honakoak dira haren organo sozialak: Batzar Nagusia (Udalaren Osoko Bilkurak eratzen duena) eta Administrazio Kontseilua (Osoko Bilkurak izendatua). Eraketa-estatutuen arabera, Batzar Nagusiari dagozkio, funtsean, jada azkendu den Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legeko 44. artikuluan jasotako eskumenak –gaur egun, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategineko 160. artikuluan jasotakoak–. Funtsean honakoak dira: urteko kontuak onestea; Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea eta kargutik kentzea; estatutuak aldatzea; kapital soziala handitzea edo gutxitzea eta sozietatea eraldatzea eta desegitea.

2012ko maiatzean estatutuak aldatu ziren arte, Administrazio Kontseiluak –bost kidek osatutakoa– eskuordetzeko moduko lege- eta estatutu-ahalmen guztiak lehendakariarengan eta sozietateko kontseilu delegatuarengan (garai horretan, Udaleko alkatea) eskuordetuta dauzka Azken horrek, bere aldetik, behar adinako botereak eta botere zabalak ematen dizkio sozietatearen kudeaketarako zinegotzi kontseilukide bati –“ahalduna”–, zeinak bere gain hartzen baitu, halaber, Administrazio Kontseiluko idazkaritza. Zehazki, honakoetarako ahalmena ematen zaio:

- Kontratuak Obrei, aseguruari, errentamenduari, lanei eta gisa guztietako hornidurari buruzko kontratuak egitea, ebaztea, aldatzea edo azkentzea.
- Kudeaketa. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin joatea sozietate, elkarte eta beste edozein pertsona juridikoren bilkura edo batzarretara.
- Zerga mailakoak. Zerga eta errekurtsioen ordainketa.

- Edozein motatako kobrantzak eta ordainketak.

- Praktika administratibo eta prozesala. Epaitegi, notario-etxe, erregistro eta edozein mota-tako bulego publiko zein pribatutara eta erakunde publikoetara joatea. Ahalordeak ematea epaitegi-tako prokuradoreen eta legelarien alde.

Halaber, aipatutako ahaldunak sozietatearen kontabilitateaz arduratzen zen. Lan horrengatik, hilero 300 euroko lansari gordina jasotzen zuen. Udaleko idazkariaren 2013ko abenduko txosten baten arabera, ordainsari horiek bateraezinak ziren zinegotzia izatearekin eta udalbatzako kidea izatearekin, kargua arduraldi eskusiboko araubidean emanaz gero.

Kontseilu horren hasierako osaera honakoa zen –2004ko ekainaren bateko Osoko Bilkurak hautatu zituen bost kideak–: Alkatea, buru gisa; zinegotzi bat, idazkari gisa; udalbatzako aholkulari juridikoa –izendapen askeko kargua– eta udalbatzaz kanpoko bi kide.

Bai Kontseiluko burua, bai idazkaria, arestian aipatu ditugunak, kargu horietan ari ziren lehentasunezko partaidetzak erosi ziren garaian (2011ko martxoa).

Gero, karguak berritzeko eta kargugabetzeko kasu desberdinetan, Kontseiluko kide guztiak Udaleko zinegotziak izan dira, salbu eta aholkulari juridikoa. Estatutuak 2012an berri-ondoren, Kontseiluko kideen kopurua bederatzira arte igo zen, horren barne direla burua eta idazkaria, guztiak ere udalbatzako kideak.

Bestalde, estatutu-tako 27. artikulua-aren arabera, Udaleko kontu-hartzailetzari dagozkio “barne kontroleko eginkizunak, sozietatearen kudeaketa ekonomikoari dagozkionak, hiru ikus-puntutatik: kontu-hartzailetzako kontrola, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren gaineko kontrola”.

Bere xede sozialak betetze aldera, Andacelay SLk Eguesibarko Udalak doan lagatako lurzati batzuk jaso zituen, etxebizitza babestuen eraiki eta sustatzeko. Gero, lurzati horiek Andacelayk –ehuneko 51– eta bazkide pribatu batek –ehuneko 49– parte hartutako bi sozietate misto-ri besterendu zitzaizkien.

Honakoei zehazki:

- Sociedad Gestión y Promoción Egüés 21, SA. 2005ean eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin. Sozietateak bi lurzati erosi zituzkien Andacelayri zortzi milioiko kopurua ordainduta (BEZik gabe).

- Sociedad Gestión y Promoción Egüés 21 II, SL. 2010ean eratu zen, 3.100 euroko kapital sozialarekin. Hiru lurzati erosi zituzkien Andacelayri lau milioiko prezioan (BEZik gabe).

Aurreko sozietate mistoen bidez aurreikusitako jardueraz gainera, Andacelay sozietateak bere kargura –eta kanpoko kontratazioen bitartez– honako obrak egin ditu, dagokien ekipamenduarekin: Sarrigurengo udal bulegoen eraikina eta Sarrigurengo Kirol Hiriko jolaserako eta aisia-rako igerilekuak. 2011n, instalazio horiek –guztira 7,9 milioiko prezioan baloratuak, BEZik gabe– doan eskuratu zitzaizkien Udalari.

Andacelay, SLren urteko kontuak ekitaldi guztietan ikuskatu izan ditu kanpoko enpresa ba-tek.

¹2012ko abenduaren 31n, sozietatearen ondare garbia 3,6 milioikoa da; 2012ko ekitaldiko emaitza -20.034 eurokoa da –negatiboa, beraz–; 2,4 milioiko eskudirua dauka eta 1,03 milioi egi-ten duten aldi baterako finantza-inbertsioak dauzka. Aktibo ez-korrontea sozietate mistoen kapi-talean egindako inbertsioak dira, 154.581 euroan baloratuta daudenak. Ez du epe luzeko zo-rrik, eta epe laburrekoak 6.874 eurokoak dira.

¹ Horren barruan dago lehentasunezko partaidetzetan egindako inbertsioa.

Finantza-egoeren bilakaeratik (2005etik 2012ra), honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Likidezia-bolumen handia, zeina bai epe laburreko finantza-inbertsioetan, bai eskudiruetan islatzen baita, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala (euroak, milakotan):

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Epe laburreko finantza-inbertsioak			2.516	9.032		3.858	1.111	1.034
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	2.100	2.107	5.757	283	8.587	2.406	2.307	2.357
Guztira	2.100	2.107	8.273	9.315	8.587	6.264	3.418	3.391

- Sortu zenetik lortu diren emaitzak –guztira, 13,4 milioi egiten dute, guztira– honakoak izan dira (euroak, milakotan):

Emaitzak	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Emaitzak	2.242	37	6.285	1.072	338	3.438	-5	-20

Emaitza positiboen amaierako erabilera, funtsean, honakoa izan da:

- 2009ko (0,26 milioi) eta 2010eko (0,12 milioi) dibidendu-banaketa.
- Udalari obrak eta altzariak lagatzea, erreserben kargura: 9,23 milioi.
- 2012ko abenduaren 31ko erreserbak 3,59 milioikoak ziren.

IV. ANDACELAY, SL TOKIKO SOZIETATE PUBLIKOAK LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZAK EROSTEA

IV.1. LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZAK

Lehentasunezko partaidetzak, Balore-merkatuko Nazio Batzordearen arabera, entitate batek jaulkitako betiko izaerako balioak dira, kontuko idatzoharren bidez eginak, transmititu daitezkeenak eta ez kapital sozialeko partaidetzarik, ez boto-eskubiderik ematen ez dutenak.

Haien errentagarritasuna baldintzatuta zegoen, hasiera batetik, entitate jaulkitzaileak edo matrizeak etekin banagarriak izatearekin; orokorrean, errentagarritasun hori finkoa zen aldi jakin baterako, nominalaren gaineko ehuneko jakin batekin; gero, aldagarri izatera pasatzen zen, merkatuaren bilakaeraren arabera. Errentagarritasun horiek ez dira metagarriak eta urtebetekoa baino aldi laburragoetan ordaintzen dira; jokabide horren aldetik, nolabaiteko antza dute gordailuekin, zeren eta jasota baitzegoen behin hasieran finkatutako aldia iraganda inbertsioa berreskura zitekeela. Baldintza horiek direla eta, produktua erakargarri bilakatu zen inbertsio-egile txikien artean.

Espanian, errenta finkoko eta lehentasunezko partaidetzen balio gehienek kotizatzen duteneko merkatua AFBE-Aktibo Finantzarioen Bitartekarien Elkartearen bigarren mailako merkaturua da. Merkatu hori erregulatuta dago eta agintarien kontrolaren eta ikuskapenaren pean dago bere funtzionamenduari, balioen kotizazioa onartzearen arloari eta informazioaren zabalkundeari dagokienez.

²Partaidetza hauek, funtsean, finantza entitateek jaulki zituzten –batez ere, aurrezki kutxek beren kaudimenaren ratioak hobetu eta baliabide berekiak sendotze aldera, eta, batez ere, txikizkako inbertsio-egileen artean merkaturatu ziren, bereziki 2008an eta 2009an.

2011ko otsailan, ordea, otsailaren 18ko 2/2011 Errege Lege Dekretua argitaratzearekin batera, utzi egin zitzaion lehentasunezko partaidetzak kreditu-erakunde oinarrizko kapitalaren eraginetarako zenbatesteari eta, horrenbestez erakunde horiek haiek jaulkitzeko interesa galdu zuten; gainera, apirilaren 11ko 6/2011 Legea argitaratzearen ondorioz, nabarmen aldatu zen lehentasunezko partaidetzen ordainketa-araubidea, kalte nabarmena ekarri lehentasunezko partaidetzak zeuzkatenei, zeren eta entitateak etekin banagarria eduki behar izateaz gainera, haren administrazio kontseiluak, zuhurtziarakotasunez, erabaki baitezake ordainketa epe-mugarik gabe deuseztatzea. Horretaz gainera, Espainiako Bankuak exijitu ahalko du errentagarritasun horren ordainketa deusezta dadin, kreditu-entitatearen finantza- eta kaudimen-egoeraren arabera. Bestalde, lehentasunezko partaidetzak dituztenei ezartzen zaie entitate jaulkitzailearen galera korronteak nahiz etorkizunekoak beren gain hartzeko betebeharra.

Araudiaren aldaketa horrekin eta krisialdi ekonomikoa iristearekin, bereziki 2011tik aurrera, ezinegon handia sortu zen gizartean, batez ere aurreztaile txikien artean, eta produktu horretaz libratzeko asmoa adierazten hasi ziren. Arazoa honakoan datza: produktua saltzeko, arestian aipatu dugun bigarren mailako merkatura jo beharra dago, eta merkatu horren bereizgarria da likidezia txikia duela, etengabeko merkatuaren likideziarekin alderatuta. Produktuaren salmenta, oro har, soilik gauzatuko da hura inbertsio-kostua baino dezentez merkeago erosteko prest dagoen erosle bat aurkituz gero. Azken batean, partaidetza horien balioa deblauki jaitsi zen. Partaidetza horiek zituztenek ikusi zuten saltzerik ez zuten tresna bat bazeukatela, eta gainera, kasu askotan, hitzartutako errentagarritasuna jasotzeari utzi zioten, jaulkitzaileak etekin-bolumen nahikoa ateratzerik ez zuelako.

Finantza-entitateek gisa desberdinetako konponbideak aplikatu zituzten inbertsio-galera ahal den guztian gutxitzeko. ³Alabaina, jaulkipena banku nazionalizatu batek edo laguntza publikoak jasotako batek egingo izanez gero –horixe da Catalunya Caixaren kasua–, Europako Batzordeak betebeharrak ezarri zuen: lehentasunezko partaidetzen edukitzaileek finantza-

² Alabaina, enpresa handiek ere erabili zituzten.

³ Espainian gertatutakoaz bestera, Europako gainerako herrialdeetan, lehentasunezko partaidetzak, oro har, erakundeetako inbertsio-egileen artean baizik ez ziren merkaturatu.

entitatearen erreskate-kostuaren zati bat beren gain hartzea, egindako inbertsioetatik kita nabarmen handiak eginez.

Sortutako arazoari konponbidea eman nahian, Gobernu Zentralak arbitraje sistema bat jarri zuen abian nazionalizatutako entitateetako lehentasunezko partaidetzak izan eta produktua engainu bidez erosi zutela demostra zezaketenentzat –sistema hori soilik aplikatu ahal zitzaizen kontsumitzailetzat jotakoei–, sistema horren bidez inbertsioa berreskuratu ahal zezaten. Bide horretara jotzerik ez zuenarentzat eta balizko engainua demostratzerik ez zuenarentzat, jasandako kita oso handia izan da, inbertsio-balioarekin alderatuta. Aurreztaile txikien kexa nagusien arrazoia izan zen erosketa egiterakoan honakoak gertatu zirela:

- Produktuaren arriskuei buruzko funtsezko informazioa falta izatea.
- Produktuaren gaineko informazioari zegozkion funtsezko datuak ezkutatzea.
- Inbertsioa galtzeko arriskuari buruz ez ohartaraztea.
- Ukituak finantza-entitatearekiko gehiegizko konfiantza izatea.

Laburbilduz, lehentasunezko partaidetzak finantza-tresna konplexu, erasotzaile, eta arrisku handikoa da, eta errentagarritasuna izan dezake; baina, era berean, gerta daiteke inbertitutako kapitala galtzea. Teorian, batez ere inbertsio-egile profesionalentzat diseinatutako produktua da.

Txosten honen eranskinean, laburpen-taula bat ageri da, lehentasunezko partaidetzen eta beste balio negoziagarri tipiko batzuen arteko desberdintasunei buruzkoa.

IV.2. ANDACELAY, SL SOZIETATE PUBLIKOAK LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZAK EROSTEA.

Ondoren, kronologikoki aipatzen ditugu Andacelayk egindako lehentasunezko partaidetzen erosketaren item nagusiak, bai eta horrekin lotuta geroztik gertatutako gertakariak ere.

2011ko martxoa. Andacelay sozietateak 100 lehentasunezko partaidetza erosi zituen 2011ko martxoaren 17an, Catalunya Caixaren A sailekoak, bakoitzarengatik 1.000 euro ordainduta. Guztira ordaindutako zenbatekoa 100.241,15 eurokoa da, eragiketarik heldu diren gastuak barne.

Nabarmendu beharra dago ezen, aurrez, erosketa bermatzen zuen dokumentazioa, sozietatearen artxiboetan gaur egun ageri dena, funtsean Catalunya Caixa entitatearen Iruñeko 0770 hiri bulegoak emandakoa zela, Andacelayren Administrazio Kontseiluko buru berriak 2013ko urtarrilean egindako eskariari erantzunez. Sozietatearen artxiboetan soilik ageri ziren, Administrazio Kontseiluko idazkari berriaren ziurtagirian jasota dagoenaren arabera, erosketa-aginduaren eta zaintza- eta mantentze-kontratuaren kopia bana.

Dokumentazio horren multzoari dagokionez, honakoa esan behar dugu:

• ⁴Entitateak erosketa-eragiketa egin zen egunean bertan bezeroari eginiko “egokitasun testaren” emaitzak “aurreratua” ezagutza-maila esleitzen dio, eta honakoa gehitzen du zehazki: “Bezeroak inbertsioen inguruko behar adina ezagutza eta esperientzia dauzka aurrezki-inbertsioko produktuak kontratatzeko, baita errentagarritasunean eta kapitalean arriskua duten produktuak ere”. Test horren datu pertsonalen atalean, Andacelay SL sozietatea ageri da; halaber, sozietate bera ageri da dokumentu horren sinaduran. Dokumentu horren sinadura irakurtezina da, eta bat dator, oro har, Administrazio Kontseiluko buruarenekin, zeina, une hartan, Eguesibarko Udaleko alkatea ere bai baitzen. Ez da ageri test hori egin zuen edo egin zuten finantza-entitateko pertsonaren edo pertsonen sinadura edo identifikaziorik; soilik, entitatearen arestian aipatutako 0770 hiri bulegoa ageri da identifikatuta.

• Lehentasunezko partaidetzak erosteko aginduan, 2011ko martxoaren 17ko data daramanean, titular gisa Andacelay, SL sozietatea ageri da, eta sinadurari dagokionez aurreko atalean

⁴ Honelako eragiketarako Europako eta nazioko araudiak eskatzen duten alde aurretiko dokumentua.

adierazitakoa bera berresten dugu. Agindu horretan, finantza-entitatearen zigilu bat ageri da, bai eta identifikatu gabeko sinadura bat ere.

Erosteko agindu horretatik, honakoa nabarmendu behar dugu, hitzez hitz:

“Izena: CATALUNYA CAIXAREN PREFERENTIAL ISSUANCE LIMITED A SAILEKO LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZAK, .

Produktuaren profila: ERASOKORRA

Produktuaren profilaren definizioa: 3 urtetik gorako denbora-mugan errenta aldagarriaren errentagarritasuna bilatzen duten inbertsio-egileentzako produktu egokiak, baldin eta prest badaude epe laburrean inbertsioak behera egiteko eta aldakortasun handiak jasateko”.

- Balioen zaintzari eta administrazioari buruzko kontratua erosketa-agindua egun berean formalizatu zen. Titular gisa, Andacelayren Administrazio Kontseiluko burua ageri da berariaz (sozietatearen ordezkari gisa), eta finantza-entitatearen izenean, zerbitzu orokorretako zuzendaria. Kontratu horri honakoak erantsi zaizkio:

a) Eranskin bat, finantza-entitateak jasanaraz ditzakeen komisioen taula batekin.

b) *“Asignal” kategoriako komunikazioa, non baieztatzen baita ezen “finantza-tresnen inbertsio-egileak babesteari buruzko araudia betez, bezeroari jakinarazten zaiola TXIKIZKAKO bezeroaren kategoria eman zaiola, eta horrek ematen diola araudi horrek aurreikusitako babes mailarik handiena. ⁵Halaber, ahalmena ematen zaio PROFESIONAL gisa sailkatzeko; horrek, nolana ere, babes maila txikiagoa emanen lioke.”*

- Catalunya Caixaren A saileko lehentasunezko partaidetzen lehenengo jaulkipenaren (1999an izan zen) termino eta baldintza nagusiei buruzko “laburpenetik” haien ezaugarri nagusiak ateratzen dira. Hurrengo taulan islatu ditugu:

Irrati-katea	⁶ Caixa Catalunya Preferential Issuance LTD ⁶
Bermatzailea	Caixa Catalunya
Titulua edo balioa	A saileko lehentasunezko partaidetzak
Balio nominala	1.000 euro
Balioak ordezkatzeko modua	Kontuko idatzoharrak
Dibidendua	Dibidendu aldagarria, hiru hilabeterako euriborra erreferentzia duena, gehi 0,10 puntu, urteko % 4ko urteko gutxienekoarekin (% 4,06ko UTBa) jaulkipenaren lehenengo hiru urteetan.
Dibidenduen ordainketa	Dibidenduak muga-egunera iritsitako hiruhilekotan ordainduko dira, hilaren 30ean edo hurrengo egun baliodunean –urte bakoitzeko martxoan, ekainean, irailean eta abenduan–.
Epea	Betiko izaera dute. Jaulkitzaileak jaulkipena edozein unetan amortizatu ahalko du, Espainiako Bankuak eta bermatzaileak aurrez baimena emanda. Horretarako, betiere, bost urte iragan beharko dira ordainketa egiten denetik, eta titularrari balio nominala eta dibidenduetatik dagokion zatia ordainduko zaizkio..
Kotizazioa	Errenta Finkorako AFBEren merkatua.
Likidezia	Likidezia izanen da tituluek Errenta Finkorako AFBEren merkatuan duten kotizaziotik heldu dena. Titularrak titulua saltzeko aginduak eta sortzen doazen erosketa aginduak automatikoki gurutzatzen joanen dira bigarren merkatuaren bitartez, non bermatzen baita muga-aldaketa bateragarriarekin egindako erosketa- eta salmenta-aginduen gurutzatzea, eta, horien artean, aldekoena gauzatuko da, agindu zaharreneetatik hasita.

⁵ Finantza Tresnen Merkatuei buruzko Europako Zuzentarauaren arabera, txikizkako bezeroa da babes-maila handiena hartzen duena.

⁶ Kaiman Uhartean legediaren arabera jaulkitakoak.

⁷Hala eta guztiz ere, Catalunya Caixaren “argibide-liburuxka osoak”, A saileko lehentasunezko partaidetzen jaulkipenari buruzkoak, bere 0.5 atalean titulu bat aipatzen du, “Jaulkipenaren arriskuak” izena daramana. Bada, arrisku horiek ez daude aurreikusita aurreko laburpenean. Arrisku horiek honako hauei buruzkoak dira:

a) Dibidenduak ez jasotzeko arriskua. Horretarako baldintza izanen da hiruhileko bakoitzeko dibidenduen baturak ez gainditzea etekin banagarria eta baliabide berekiei buruzko araudiak ezarritako mugak.

b) Jaulkipena likidatzeko arriskua. Betiko izaera daukaten arren, jaulkitzailea edo Catalunya Caixa bera likidatzen direnean likidatu ahalko dira. Azken kasu horretan, lehentasunezko partaidetzen titularrei ez zaie nahitaez bermatzen haien balio nominalaren ehuneko 100 jasotzea.

c) Jaulkitzaileak alde aurreko amortizazioa egiteko arriskua. Jaulkitzaileak jaulkipena edozein unetan amortizatu ahal izanen du bosgarren urtetik aurrera, Espainiako Bankuak eta bermatzaileak alde aurretik baimena emanda.

d) Merkatuko arriskua, zeina heldu baita errenta finkorako AFBE-Aktibo Finantzarioen Bitartekarien Elkartearen merkatuan daukan kotizaziotik; izan ere, amortizazio prezioan eragin dezake. Halaber, dibidenduek, hirugarren urtetik aurrera, merkatuko interes tasen bilakaeraren eragina paira dezakete.

- Kontseiluko idazkari berriaren ziurtagiriaren arabera, ez dago jasota erosketa hori Administrazio Kontseiluak onetsi zuenik, ez eta hari jakinarazi zitzaionik ere.

2011ko martxoa. Lehentasunezko partaidetzak erosi ziren egun berean, sozietateak epe finkorako ezarpen bat itundu zuen, urte betekoa, finantza-entitate berean: 300.000 euroko ezarpena zen eta itundutako interes-tasa ehuneko 3,942 nominala da, ehuneko 4,001eko UT-Barekin. Ezarpenaren agirian, honakoa ezartzen da: *“Itundutako interes tasa nominalak honako baldintzak izanen ditu: titularrek Catalunya Caixak jaulkitako A edo B sailtako lehentasunezko partaidetzak erosi beharko dituzte, eta partaidetza horiek ezarpen honen nominalaren heren bat edo gehiago egin beharko dute, eta inbertsio horri eutsi beharko diote ezarpena muga-egunera iristen den arte.* Lehentasunezko partaidetzak erosten ez badira edo titularrek aipatutako tituluak ezarpena muga-egunera iritsi baino lehenago saltzen badituzte, Catalunya Caixak ahalmena izanen du ezarpen honen interes nominalaren tasa aldatzeko eta ehuneko batean uzteko”. Ezarpen honen agiriak titular gisa Andacelay sozietatea ageri da, sinadura ulertezin batez ordezkaturia; sinadura hori, oro har, bat dator Administrazio Kontseiluko buruarenarekin. Sozietateak emandako informazioen arabera, ezarpena 2013ko urtarrilean kitatu zen.

2011ko martxoaren 21ean, finantza-entitate berarekin, urtebeteko ezarpen bat itundu zen, 2,26 milioi eurokoa, ehuneko 2,5eko interes-tasarekin (ehuneko 2,529 UTBa.). Ezarpen hori aurrez ezeztatu zen, 2011ko ekainaren 2an.

2012ko maiatza. Udalaren Osoko Bilkurak onetsi egin zituen bai Udalak bai haren sozietate publikoek azken urteetan erabilitako kontratazio-prozedurak eta kudeaketa aztertzeko sortu zen lerketa Batzordearen ondorioak. Halaber, erabaki zen haiek Agoizko Epaitegiari, Fiskaltzari eta Foru Ogasunari helaraztea, jarduketa horietatik erator litezkeen ardurak ezar zitzaten.

Akziodunen Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluko burua kargutik kendu zuen –bai eta kontseilari delegatu eta kontseilari karguetatik ere–; halaber, kontseilu horretako ahalduna eta idazkaria kargugabetu zituen. Beste administrazio kontseilu bat izendatu zen, oposizioko zinegotzi bat buru zuena. Ondoren zinegotzi horrek, 2012ko martxoan, alkate kargua hartu zuen.

2012ko urtarrila. Administrazio Kontseiluko buru berriak Catalunya Caixari eskatu zion bere garaian lehentasunezko partaidetzen erosketa bermatzeko erabili zen dokumentazioa.

Eguesibarko Udaleko Nafarroa-Bai udal taldeak kereila bat aurkeztu zuen Administrazio Kontseiluko aurreko buruaren aurka, ustezko sozietate-delituengatik, prebarikazio administra-

⁷ Balioen Merkatuko Batzorde Nazionalaren erregistro ofizialean egiaztatua eta inskribatua.

tiboarengatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik eta lehentasunezko partaidetzen erosketan iruzur egiteagatik.

2013ko otsaila. Iruñeko 2. Instrukzio Epaitegiko titularrak alde zuzeneko diligentziak zabaldu zituen Administrazio Kontseiluko buruak lehentasunezko partaidetzak erosi izatea ikeritzeko. Halaber, informazioa eskatu zien bai Udalari bai sozietateari eta Catalunya Caixari ere.

Udaleko Osoko Bilkurak erabaki zuen zenbait konponbide aztertzea lehentasunezko partaidetzen egoera zela eta.

2013ko martxoa. Eguesibarko Udaleko alkateak dimisioa aurkeztu zuen. Andacelayko Administrazio Kontseiluko burua den zinegotzia izendatu zen alkate.

⁸**2013ko ekaina.** Bankuak Era Antolatuan Berregituratzeko Funtseko Zuzendaritza Batzordearen ebazpenaz (2013ko ekainaren 11ko EAO) Catalunya Caixari lehentasunezko partaidetzak berrerosteko betebeharrak ezarri zitzaion, balio nominalaren gainean finkatutako deskontu batekin, eta gero hura berrinbertitzeko betebeharrak entitate beraren jaulkipen berriaren akzio ez-likidoetan. Erabaki horren arabera, akzio horietan berrinbertitu beharreko zenbateko efektiboa lehentasunezko partaidetzetan inbertitutako nominalaren ehuneko 38,62koa da. Hala eta guztiz ere, borondatezko izaeraz, Kreditu Erakundeetako Gordailuen Berme Funtseko erabakiak akzio horiei likidezia ematea, haiek prezio jakin batean erosteko eskaintza baten bitartez – nominalaren ehuneko 33,29– eta ezarritako epe baten barrenean (2013ko uztailaren 12ra arte).

Andacelay sozietatearen Administrazio Kontseiluak erabaki zuen Catalunya Caixaren akzioak Kreditu Erakundeetako Gordailuen Berme Funtseari saltzea. Horren emaitza da sozietateak 33.290 euro berreskuratu dituela guztira; hau da, lehentasunezko partaidetzen erosketan inbertitutako nominalaren ehuneko 33,29. Laburbilduz, honako eragiketak egin dira:

Andacelay SLk erositako lehentasunezko partaidetzak likidatzea	Zenbatekoa
Catalunya Caixak lehentasunezko partaidetzak berrerostea	38.620,00
Andacelayk Catalunya Caixaren akzioak hartzea	(38.618,29)
Andacelayk Catalunya Caixako akzioak saltzea Kreditu Erakundeetako Gordailuen Berme Funtseari	33.288,97
Amaierako saldoa	33.290,68

2013ko iraila. Catalunya Caixak sozietateari jakinarazi zion ez zituela betetzen entitateek arbitraje prozeduretara iristeko nahitaez bete behar dituzten baldintzak, zeren eta ez baitu kontsumitzaile izaerarik.

⁸ Catalunya Caixaren jabea, hura nazionalizatu ondoren.

V. ONDORIOAK

Parlamentu-eskariarekin bat, ondoren erakusten ditugu egindako lanaren ondorioak. Aurrez adierazi den bezala, fiskalizatutako eragiketa erabaki judizial baten zain dago.

V.1. ANDACELAY, SLK LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZAK EROSTEAREN TESTUINGURUA

Egindako erosketa bere testuinguruan jartze aldera, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Finantza produktu erasokor baten erosketa bati buruz ari gara. Produktua oso espekulatiboa da, egindako inbertsioa arrisku handian jartzen duena, eta haren errentagarritasuna entitate jaulkitzailearen zuhurtziarakotasunak eta egoera ekonomikoak guztiz baldintzatua dago. Horrenbestez, erosketa hori ulertezin gertatzen da, gure ustez, funts publikoen kudeaketa egoki, arrazoizko eta zuhurraren ikuspuntutik.

- 2011ko martxoan egin zen erosketa, arau-aldaketak eta krisi ekonomikoak lehentasunezko partaidetza horien errentagarritasunean eta erreskatean eragin larria zeukatenean, gizartean kezka eta ezinegon handiak zeudenean eta hedabideetan gaia maiz ateratzen zenean. Hau da, litekeena da inbertsio hori une hartan arrisku suena eta gutxien komeni zena izatea.

- Behar adinako finantza-ezagutzak dauzkan pertsona batek egiten du, finantza-entitateak berak halakotzat sailkatuta. Azken batean, aitortzen da erosleak eragiketa ezagutzen duela eta izan ditzakeen arriskuak direla-eta eskarmentua baduela.

- Kontuen Ganberak fiskalizazioaren arloan dauzkan eskumenak direla eta, ezin dugu egiaztatu Andacelayk erositako lehentasunezko partaidetzen jatorria edo sorburua zein den.

- Ez dago jasota inongo dokumentaziorik egindako eragiketa justifikatzen duenik, ez tresna finantzarioa sozietate publiko batentzat egokia izateari dagokionez, ez eta inbertsioa eginen zuen entitatearen hautapenari dagokionez ere. Hau da, ez dago jasota inongo analisirik edo azterketarik inbertsio hori egiteko egon daitezkeen bestelako aukerei buruz.

- Jada 2010etik, Espainiako finantza-sistema berregituratzeko planaren barruan, Banku Sektorera Era Ordenatuan Berregituratzeko Funtsaren laguntza publikoak hartzen ari zen finantza entitate batekin egin zen eragiketa. Egoera horrek larriki kaltetzen zuen etekin onuragarriak lortzeko aukera eta, horrenbestez, lehentasunezko partaidetzadunen errentagarritasuna.

- ⁹Bestalde, Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialaren arabera, Andacelay SLren Administrazio Kontseiluko bi kide, horien artean zinegotzi delegatua, Caixa Catalunya entitateko ahaldunak izanak ziren. Halaber, hirugarren bat, Udaleko zinegotzia eta Akziodunen Batzordeko kidea, entitate horretako ahalduna da 2000ko martxotik; lehentasunezko partaidetzak erosteko unean –2011ko martxoan– entitate horretako ahalduna izaten jarraitzen zuen. Kontua da pertsona hori aipatutako erosketa izapidetu zeneko Caixa Catalunya bulegoko zuzendari gisa ageri dela.

- Udalaren Jardueren Erregistroan ez daude jasota Andacelay sozietateko zuzendaritza organoetako kideak izan diren Udaleko zinegotzien aginduzkoak diren adierazpenak, balizko batezintasunen eta diru-sarrera ekonomikoak ematen dituzten edo eman ditzaketen jardueren arrazoiei buruzkoak.

V.2. LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOA BETETZEA LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZAK EROSTERAKOAN

Abiapuntutzat hartzen badugu administrazio publikoen jarduketa guztiek objektiboki interes orokorrak zerbitzatu behar dituztela eta administrazioak sozietate publiko batek ordezkatzeko duen antolamendu-era pribatua hartzeak ez duela indargabetzen betebeharrak edo xede hori, honako adierazi behar dugu:

⁹ Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialaren arabera, kontseiluko kide delegatua Catalunya Caixaren ahalduna izan zen 2003ko abuztura arte, eta kontseiluko beste kidea 2004ko irailera arte.

- Funtsean hirigintza kudeatzea eta sustatzea helburu sozial gisa duen tokiko sozietate publiko batek egindako eragiketa bat da.
- Ez dago arau publikorik horrelako produktu finantzarioak eskuratzea debekatzen edo mugatzen duenik. Alabaina, ez dirudi eragiketa oso espekulatiboak egitea justifikagarria denik, interes publikoa lortzearen ikuspuntutik.
- Lehentasunezko partaidetzak eskuratzea ezin da jo Andacelayren helburu sozialaren aurkako ekintzatzat, zeren eta merkataritza trafikoaren berezko egitate bat baita, eta sozietatea horretarako gaikuntza badu. Hala eta guztiz ere, eragiketa arriskutsua, desegokia eta justifikaziorik gabea da.
- Emandako ordezkari itzulia ahalmena tarteko, sozietateko kontseilari delegatua eskuduna zen erosketa hori egiteko eta ez zuen behar ez administrazio kontseiluak, ez akziodunen batzorde orokorrak (Udalaren Osoko Bilkura) berrestea. Hala eta guztiz ere, aztertutako dokumentazioaren arabera, ez dago jasota erosketa hori egiteko inongo prozedurarik jarraitu zenik.
- Kontseilari delegatua eta administrazio kontseilua dira sozietatearen kudeaketaren ardura-dunak; haiei behar den diligenzia exijitu behar zaie sozietatearen funts publikoak erabiltzeari dagokionez. Aztertutako eragiketari, eta berrikusi den dokumentazioaren arabera, ez dago jasota aipatutako kontseilari delegatuak eragiketari buruzko informaziorik eman zienik kontseiluko gainerako kideei. Merkataritzaren arloko legediaren arabera, jarduketa horren erantzukizuna, erruduntzat jo daitekeen ezkututzerik ez badago, administrazio kontseiluarena da, zeren eta kontseilari delegatua administrazio organoaren ordezkari gisa jarduten baitu, eta bera baita eskumen hori duena eta erosketaren kasuko egintza juridikoan ordezkari ageri dena.
- Baliabide publikoen galerak, eragiketarik eratorri denak, agerian jartzen du ez dela behar zen diligenziaz jokatu. Kontabilitatearen arloko ustezko erantzukizun kasu bat da, eta haren zenbatespena txosten honetako V.4. atalean islatu dugu. Hori guztia, halere, ez da eragozpena izanen bestelako erantzukizun juridikoak eskatu ahal izateko.
- Ganbera honek dauzkan fiskalizazio-erakundeak direla eta, eta jada ezagutzen ditugun datu eta elementuekin, zail gertatzen zaigu baieztatzea ezen aztertutako kasuan bateraezintasun arrazoiak daudenik, edo abstenitzeko arrazoirik, edo jarduera pribatuetan jarduteko mugarrazoirik, zeinak sozietateko zuzendaritza organoetako kide diren udalbatzako kideei aplikatu behar baitzaizkie. Halakorik dagoela baieztatu ahal izateko, zehatz ezagutu beharko litzateke zein lanpostutan jardun duten aipatutako zinegotziek kasuko kreditu-erakundeak.

V.3. LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZEN EROSKETAN APLIKATUTAKO BARNE KONTROLEKO ETA GARDENTASUNEKO PROZEDURAK.

Berrikusitako dokumentazioaren arabera, ez dago jasota ezen, estatutuak aplikatuta, aztertutako erosketa Udalaren barne kontroleko organoei helarazi zitzaizkien, hiru arlotako fiskalizazio ekonomikoa egin zezaten: kontu-hartzailetza, finantza kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.

¹⁰Halaber, sozietatearen 2011ko ekitaldiko urteko kontu laburtuetan eta kontu-ikuskaritzari buruzko txostenean, oroitidazkian ez dira ez aipatzen, ez berariaz zehazten ez lehentasunezko partaidetzen erosketa-eragiketa hau, ez abenduaren 31n izandako balio-galera, ez eta harekin lotutako gordailua ere. Huts horren eta dokumentazio faltaren ondorioz, Kontuen Ganbera honek ez zuen eragiketa aipatu Udalaren 2011ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostenean.

Horri dagokionez, uste dugu halako garrantzia duen eragiketa horren berri, enpresa publikoaren helburu sozialaz bestekoa izanik, Batzorde Orokorrari jakinarazi behar zitzaioela, gutxienez ere urteko kontuak onesteko unean.

¹¹2012ko urteko kontu kontuetan eta kontu-ikuskaritzaren txostenean –kontu-ikuskaritzako beste enpresa batek egin da– bai aipatzen da berariaz Udalak lehentasunezko partaidetza horiek badituela eta zenbatean kalkulatu den balio-galera. Hartara, honakoa esaten da:

¹⁰ 2012ko apirilean jaulki zen

¹¹ 2013ko uztailaren 10ean jaulki zen

- Catalunya Caixaren lehentasunezko partaidetzen balio nominala: 100.241,15 euro.
- Lehentasunezko partaidetzen balio-galera 2012ko abenduaren 31n: (70.168,81) euro.

Halaber, esaten da ezen 2012ko abenduaren 31n indarrean dagoela entitate horretako 300.000 euroko gordailua.

V.4. ERAGIKETAREN EMAITZA EKONOMIKOA.

Sozietatearentzako galera ekonomikoak, lehentasunezko partaidetzen salerosketatik heldu direnak, 65.520,69 eurokoak dira; hau da, egindako inbertsioaren ehuneko 65,36. Hona xehetasunak:

Lehentasunezko partaidetzak	Gastuak	Diru-sarrerak
Lehentasunezko partaidetzak erostea	100.241,15	
Etekinak (interesak(kupoiak))		1.429,78
Lehentasunezko partaidetzen berrerosketa eta akzioen salmenta		33.290,68
Guztira	100.241,15	34.720,46
Galera		65.520,69

Zehaztu beharra dago ezen aurreko etekinak soilik 2011ko ekitaldiari dagozkiola; data horretatik aurrera, ez dago jasota izaera horretako diru-sarrerarik izan denik, segur aski entitatearen finantza-egoera zailaren ondorioz.

Ondorioz, eta amaierako laburpen gisa, sektore publikoan atipikoa den eragiketa baten aurrean gaude, zeren eta eragiketa hori nekez lot baitaiteke interes publikoa lortzearekin; gainera, inbertsioaren bolumena aipatzeko modukoa da -100.000 euro-, eta arrisku finantzario handiak zeuden baliabide publiko horien osotasunari dagokionez. Lehentasunezko partaidetzen inguruabar negatiboak ezagutzen ziren garai batean egin zen erosketa, eta hura betearazi zuen pertsonak behar adinako ezagutza eta eskarmentua zeuzkan horrelako tresna finantzario konplexu eta arrisku handikoak kontratatzeke.

Ikuspuntu juridiko batetik, gure ustez eragiketa hau, nahiz eta ez dagoen berariaz debekatua merkataritzaren arloko legedian eta kontseilari delegatua hura egiteko eskuduna zen, ez dago kudeatzaile publiko orok bilatu behar duen interes orokorraren barruan, ez eta sozietate publikoaren helburuaren barruan ere; gainera, estatutuetan aurreikusitako prozedura orotatik eta barne kontroleko mekanismoetatik kanpo egin da. Halaber, eragiketa beharrezkoa den gardentasuna eduki gabe egin zen; ez zitzaien jakinarazi entitateko organo sozialei eta ez zen berariaz islatu urteko kontuetan.

Bestalde, bigarren mailako merkatuaren funtzionamendua ikusita, non partaidetza horiek kudeatzen baitira, haien erosketa heldu da, oro har, alde aurretik egindako salmenta agindu batzuetatik. Ez dakigu hori izan ote zen erosketa honetan aplikatu behar zen kasua.

Eragiketaren amaierako emaitzek erakusten dute Andacelayko administratzaileek dilijentzia ezarekin jokatu zutela, eta jokaera horrek 65.520,69 euroko galera ekonomikoa ekarri zion; hau da, inbertitutakoaren ehuneko 65,36ko galera. Araudi indardunaren arabera, administratzaileen jokaera hori kontabilitate-erantzukizuna eskatzeko kasu bat izan daiteke, arlo judizialean egon daitezkeen gainerako erantzukizunak ezertan kendu gabe.

Azken batean, eragiketaren guztizkoari dagokionez, ondoriozta dezakegu ez direla errespetatu baliabide publikoen erabileran exijitzekoak diren legezketasunaren, gardentasunaren eta kudeaketa zuzenaren irizpideak.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

ERANSKINA. LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZAK ETA BESTELAKO BALIO NEGOZIA-GARRI TIPIKOAK

Ondoren, taula batean jaso ditugu lehentasunezko partaidetzen eta Espainiako Zuzenbideko beste balio negoziagarri batzuen arteko desberdintasun nagusiak.

	Akzio arruntak	Partaidetza-kuotak	Lehentasunezko partaidetzak	Obligazioak
Ordainsariak	Ez dira finkoak	Aldakorra	Finkoa edo/eta aldakorra Ez da metatzekoak. Behar adinako etekin banagarriak lortzearen eta jaulkitzailearen eta Espainiako Bankuaren alde bakarreko erabakien baldintzapean	Finkoa edo/eta aldakorra Ez dago etekinak lortzearen baldintzapean
Epea	Betirakoak	Betirakoak	Betirakoak. Alabaina jaulkitzaileak erabaki dezake haiek amortizatzea despoltsapena egiten den datatik aurrera, Espainiako Bankuak eta bermatzaileak baimena eman ondoren.	Muga-eguna dute
Maila	Azken posizioa (Kapitaleko sozietateak)	Azken posizioa (Aurrezki kutxak)	Partaidetza-kuoten aurretik eta akzio arrunten aurretik, kasu bada	Lehentasunezko partaidetzen, partaidetza-kuoten aurretik eta akzio arrunten aurretik, kasu bada
Eskubide politikoak	Bai (botorik gabeko akzioen kasuan izan ezik)	Ez	Ez	Ez
Lehentasunez eskuratzeko eskubidea	Bai	Bai (partaidetza-kuoten jaulkipenen gainean)	Ez	Ez (bihurtzekoak diren obligazioen kasuan izan ezik)
Espainian bizitokia dutenentzako ordainsarien zerga-arubidea	Atxikipena	Atxikipena	Atxikipena	Atxikipena
Bermeak	Ez	Ez	Jaulkipenaren arabera	Jaulkipenaren arabera

ANDACELAY, SL TOKIKO SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO BURU OHIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

José Anastasio Andía García-Olalla jaunak, Andacelay, SL tokiko sozietate publikoak lehentasunezko partaidetzak erosteari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenaren proposamena dela eta, Zuzenbidean egokia den moduan azaldu eta ADIERAZTEN DU:

Emandako epearen barruan, honako alegazioak aurkeztu dituela:

LEHENA

1. Lehentasunezko partaidetzak erosteko unean, 2011ko martxoan, oraindik ere egunkarietan ez zen azaldu albisterik finantza-produktu hori erosteko arriskuaz ohartarazten zuenik; izan ere, egilearen aurreko txostenean prentsari buruz aipatzen dituen erreferentziak erantsi behar zituen, txostenari babesa emate aldera.

2. Ez Espainiako Bankuak, ez beste inolako kontrol- edo fiskalizazio-erakundek ez zuten ez ohartarazi ez debekatu halako produktuak saltzea.

3. Erosketa egin zen datan, Caixa Catalunya-ren kaudimenaren ratioa Espainiako Estatuarena baino hobea zen.

4. Lehentasunezko partaidetzak erosteko unean, Nazioko Gobernuak eta autonomia erkidegoetako gobernuek krisia zegoela ukatzen zuten.

5. Jende guztiak dakien bezala, lehentasunezko partaidetzen merkatua merkatu itsua da, eta kontua ez da Kontuen Ganberak dauzkan eskumenak direla-eta ezin duenik partaidetzen jatorria jakin, baizik eta ezinezkoa dela halakorik jakitea, zeren eta salmentak automatikoki eta prozedura informatikoen bitartez egiten baitziren, eta ezin baitzen saltzailea aukeratu.

6. Lehentasunezko partaidetzak erosteko arrazoia izan zen berez epe luzean interes altua ematen zutela, bai eta enpresaren etekinak ahal den guztian errentagarri egiteko epe finkoan zeukaten interes altua; izan ere, bestela 0 errentagarritasuna izanen zuten.

BIGARRENA. Egia da sozietatearen helburu soziala hirigintzaren arloko kudeaketa eta sustapena dela, baina hori ez da eragozpena kudeaketa zuzenaren bidez lortutako etekinak inbertitzeko bere garaian finantza-errentagarritasun handiena lortzeko egokienak ematen zuten produktuetan, txostenean bertan jasotzen den bezala.

Sekula ez zen eragiketa oso espekulatiborik egin; are gehiago, lehentasunezko partaidetzak erosteko eragiketa honekin batera epe finkorako ezarpen bat zegoen, % 3,942ko interes tasarekin, nahiz eta une hartako interes tasek % 1 baino txikiagoak zirenean.

HIRUGARRENA. Kalteari buruzko kalkulua oker egina dago.

Lehentasunezko partaidetzak erosi ziren egun berean, 300.000 euroko ezarpen bat egin zen, non % 3,942ko interesa adostu baitzen (merkatuan ohikoa denaz guztiz gaineratik dago hori). Interes hori ordainduko da ezarpeneko kopuruaren heren bat lehentasunezko partaidetzetan dagoen bitartean; egun hartan, baldintza hori bete egiten zen. Lehentasunezko partaidetzak egon ezean, kutxak tasa % 1era jaitz lezake. Hau da, interesetan % 2,942ko gaindikina dago lehentasunezko partaidetzak edukitzeagatik.

Interes tasaren gaindikin horrek suposatzen du interesetan urte batean behar baino 8.826 euro gehiago kobratzen direla, edo hilabete batean behar baino 735,50 euro gehiago. Ezarpen hori 2013ko urtarrilean ezeztatu denez, gutxienez 22 hilabetez behar baino interes gehiago lortu dira, 16.181 euro inguru egiten dutenak.

Ezarpena	300.000,00
Mota	% 3,942. Lehentasunezko partaidetzetan 100.000 euro inbertituta.
Mota	% 1,000. Lehentasunezko partaidetzetan 100.000 euro inbertitu gabe.
Urtebeteko interesak	11.826,00 euro. Lehentasunezko partaidetzetan 100.000 euro inbertituta.
Urtebeteko interesak	3.000,00. Lehentasunezko partaidetzetan 100.000 euro inbertitu gabe.
Urte batean interesetan izan den gaindikina	8.826,00 euro. Lehentasunezko partaidetzetan 100.000 euro inbertituta.
Hilabete batean interesetan izan den gaindikina	735,50
2011ko martxotik 2013ko urtarrilera jasotako interesak	16.181,00 euro direla kalkulatu da
Galera, txostenaren arabera	65.520,69
Interesen gainean, lehentasunezko partaidetzak edukitzeagatik	16.181,00
Egiazko galera	49.339,69

Inbertsio horri eusteko modua eduki izatera, 65.520,69 euroko galera 90 hilabete inguruko epean, hau da zazpi urte eta erdian, berreskuratuko zen; horrenbestez ezarpena ezeztatu duena da galearen erantzukizuna daukana.

Ez da baliozkoa 65.820,69 euroko galera izan dela dioen ondorioa, zeren eta 2011ko martxotik 2013ko urtarrilera interesetan jasotako emendiozko dirua deskontatu behar baita.

Azaldutako guztiagatik: Eskatzen dut behin-behineko txostenari alegazioak aurkezteko idazkia egintzat eman dadila eta, horrenbestez, txosten hau erantzukizunik gabe artxibatzea erabaki dadila.

Justiziazkoa delakoan eskatzen dut hori, Iruñean 2013ko abenduaren 16an.

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Andacelay SLRen Administrazio Kontseiluko buru ohi José Anastasio Andíaek aurkeztutako alegazioak jaso ditugu, eta behin-behineko txostenaren ondorioak aldarazten ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Alabaina, Ganbera honek honakoak zehaztu nahi ditu:

1. Gutxienez ere 2010etik, Balioen Merkatuko Batzorde Nazionalak ohartarazi izan du lehentasunezko partaidetzak tresna konplexuak direla eta arrisku handia dutela, eta produktu horrek errentagarritasuna eman dezakeela, baina inbertitutako kapitalean galerak ere eragin ditzakeela.
2. Kudeatzailek funts publikoak erabiltzen dituztenean, haien osotasuna eta segurtasuna bermatu behar dute; hori, halere, ez da eragozpena izanen ahal den errentagarritasun handiena lortzen saiatzeko, betiere arriskua ahal den guztian gutxituta. Horrenbestez, ez da onargarri gertatzen interes orokorrerako eta kudeaketa publiko egoki eta zuhurrerako ezen, errentagarritasun handienaren justifikazioaren pean, arrisku handiko eragiketa bat egin dadila, hain zuzen ere tokiko sozietate publikoarentzat munta handiko galera ekonomikoa ekarri duena. Azken batez, funts publikoen kudeaketa ezin da gidatu soilik errentagarritasunaren printzipioaren bidetik, zeren eta haien jarduketa ez baita berez inbertsio-egile profesional bati dagokiona.
3. Ganbera honen ustez ezin da lehentasunezko partaidetzen erosketa eta errentagarritasuna lotu egindako epe finkoko ezarpenarekin. Arrazoibide horrek, muturrera eramanda, bidea emanen liguke adierazteko, ezen lehentasunezko partaidetzetan inbertitutako 100.000 euro horiekin epe finkoko ezarpena egin izan balitz, sozietateak inbertsio oso-osoa berreskuratuko zuen eta, gainera, errentagarritasun bat, nahiz eta ezarpen hori ehuneko 1eko interes-tasarekin kontratatu.

Iruñean, 2013ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

